1884. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Planteatutako gaia

Jose Done eraikinaren estalkiaren konponketa. Esleipena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kontratu honen xedea Jose Done erakinaren estalkia konpontzea da.

Bigarrena: Prozedura negoziatua egin da, publizitate barik. Horrela, hiru gonbidapen egin dira. Hala eta guztiz ere, enpresa batek, azkenik, ez dau eskaintzarik aurkeztu. Honako hauek izan dira enpresen eskaintza ekonomikoak (BEZ barik):

- Luis Graña — Ez dau eskaintzarik aurkeztu
- Construcciones y reformas Txema Hidalgo, S.L — 59.618,64€
- Hermanos Elortegi, S.A. — 57.919,14€

Argudioak

Bakarra: Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta kalifikatzeko sistema kontuan harturik, Hermanos Elortegi, S.A. enpreseak puntu gehiago lortu dauz. Puntu-kopuruaren taula honakoa da:

Enpresa	**Eskaintza ekonomikoa (0-70)**	**Berme-epea handitzea (0-30)**	**Guztira (0-100)**
Txema Hidalgo, S.L.	68	0	**68**
Hermanos Elortegi, S.A.	70	0	**70**

Erabagia

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

BAKARRA: Jose Done eraikinaren estalkiaren konponketa Hermanos Elortegi, S.A. enpreseari esleitzea, 57.919,14 eurotan (BEZ kanpo), BEZari jagokon kantitatea 12.163,02€-koa da. Guztira: 70.082,16€. Beherapena: %3,68000.

Bermeon, 2012ko abenduaren 19an
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA